

ORDENANTZA, AGIRIAK LUZATU ETA TRAMITATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

3. ORDENANTZA

OINARRIA

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera, eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

ZERGA-EGITATEA

2. artikulua. Ordainarazpen honen xedea da udal organoek agiriak egin edo horien gain ardura duten udal organo eta agintariek egiten duten jarduera administratiboa, alderdi batek eskatua:

- 1.–Ziurtagiriak.
- 2.–Kopia eginbidetuak.
- 3.–Agirien konpultsa, haiek Udalak emandakoak edo eskatutakoak badira.
- 4.–Fotokopiak.
- 5.–Arma txartelak.
- 6.–Lanpostuak betetzeko deialdiak.
- 7.–Lizentzia eta baimenak ziurtatzeko tituluak.
- 8.–Txostenak eta kontsultei emaniko erantzunak.

SORTZAPENA

3. artikulua. Ordenantza honetan ezarritako tasak agiria luzatu edo tramitatzeke eskabidea aurkeztean sorraraziko dira, eta agiri hori ez da emanen, edo, hala behar badu, ez da tramitatuko, baldin eta lehenago ordaindu ez bada, eta hori egiaztatu behar duen ordainagiria eman ez bada.

SUBJEKTU PASIBOAK

4. artikulua. Ordaintzeko beharra dute tasa honen xedea diren agiriak egin edo tramitatzeke eskatzen dutenek.

TARIFAK

5. artikulua. Ordaindu beharreko tasak ordenantza honen eranskinean azaltzen dira.

KUDEAKETA ARAUAK

6. artikulua. Tasak udal diruzaintzan ordainduko dira, eskaera aurkezten denean.

TARIFEN ERANSKINA

I. epigrafea.–Ziurtagiriak.

1. Udalaren base informatikoetan bildutako datuei buruzko egiaztagiriak, automatikoki luzatzen direnak, eta erroldako esku orriak edo ziurtagiriak: 4,15 euro.

2. Administrazio espedienteetan dauden erabakien edo agirien egiaztagiriak, haiek luzatu ahal izateko aurretik txosten bat edo datu baseak gaurkotzea eskatzen badute: 12,90 euro.

–Egiaztagiriarekin batera planoak edo/eta fotokopia -eginbidez edo gabe- ematen direnean, II edo IV. epigrafeetatik dagozkien tasak ere galdatuko dira.

II. epigrafea.–Kopia eginbidetuak.

1. Espediente administratiboetan jasotako agirien kopia eginbidetua: 3,85 euro.

2. Udalaren base informatikoetan bildutako datuen kopia eginbidetua: 5,05 euro.

3. Trafiko istripu baten atestatuaren kopia eginbidetua: 88,20 euro.

Tarifa aplikatzeko, eginbide bakartzat jotzen da espediente batean jasotako agiri eta datuen gainean egiten dena, pertsona berarendako. Aurreko zenbakietan ezarritako tasari gehitu beharko zaio IV. epigrafetik dagozkiona, eginbidetu beharreko plano edota fotokopiengatik.

III. epigrafea.–Agirien konpultsa, haiek Udalak emandakoak edo eskatutakoak badira.

1. Konpultsa bakoitza: 3,10 euro.

Tarifa aplikatzeko, konpultsa bakartzat jotzen da espediente bakar batean pertsona edo entitate batek eta berak aurkezten dituen agiriak oro. Langileen lanposturako deialdietan Antsoaingo Udalak eskatzen dituen konpultsak salbuetsita egonen dira ordainketa egitetik.

IV. epigrafea.–Agirien fotokopiak, partikularrek eskatuak.

Agirien fotokopia bakoitzagatik:

–DIN A3, zuri-beltzekoa: 0,45 euro.

–DIN A4, zuri-beltzekoa: 0,35 euro.

–DIN A3, kolorezkoa: 1,65 euro.

–DIN A4, kolorezkoa: 1,35 euro.

Antsoaingo Udalaren esku geldituko diren agiriak edo udal bulegoetatik atera ezin direnak baino ez dira fotokopiatuko.

V. epigrafea.–Arma txartelen tramitazioa.

1. Txartel bakoitza: 36,45 euro.

VI. epigrafea.–Langileen lanposturako edo ordezkapenen zerrendetarako deialdiak.

1. A eta B mailan sartzeko (Funtzio Publikoaren Estatutuaren arabera), izena emateagatik: 18,52 euro.

2. C mailan sartzeko, izena emateagatik: 9,98 euro.

3. D eta E mailan sartzeko, izena emateagatik: 6,17 euro.

Deitu beharreko lanpostuak lan-kontratukoak izanez gero, deialdian aurreikusitako ordainsariak funtzionario maila bati atxiki, eta maila horri dagokion tasa aplikatu behar da.

Tasa hori ordaintzetik salbuetsita egonen dira langabezia daudenak, frogagiri bidez egiaztatzen badute.

VII. epigrafea.–Txostenak eta kontsultei emaniko erantzunak.

1. Etxebizitzak deskalifikatzeko eskatutako txostena luzatzeagatik: 46,87 euro.

2. Bertzelako txostenak eta kontsultei emaniko erantzunak: 17,49 euro.

Oharra: txostenak egin edo erantzuna emateko ordu erditik goitiko denbora behar bada, tasari kopuru hauek erantsiko zaizkio:

–Ordu erdi edo horren denbora zati bakoitzeko: 11,58 euro.

VIII. epigrafea.–Ordainagiri edo bertzelako agirien bikoiztuak, jatorrizkoa galdu edo desagertzeagatik.

1. Agiri bakoitza: 3,10 euro.

Oharra, I.1 eta VIII. epigrafeei buruz. Ziurtagiriak, bolanteak edo ordainagirien bikoiztuak egiteko eskabideak 012-Infolocal edo 948012012 telefonoaren bidez egiten badira, ez dute inolako tasarik sortuko.

IX. epigrafea.

Lizentziak ematea arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeagatik, eta tasak Antsoainen animaliak bildu eta harrapatzeagatik eta udal altxatokian altxatzeagatik:

–Lizentzia bakoitzeko: 40,65 euro.

–Animaliak bildu edo harrapatzea. Animalia bakoitzeko: 21,28 euro.

–Udal altxatokian egoteagatik, egun eta animalia bakoitzeko: 5,32 euro.